



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

**EUSKO LEGEBILTZARREKO PRENTSA ARETOAREN ERABERRITZE
INTEGRALA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA
TEKNIKOEN ORRIA ETA LEHIAKETA ESLEITZEKO MODUA**





AURKIBIDEA

	Or.
1. XEDEA	3
2. GAUR EGUNGO EGOERA	7
3. BANAKETA	11
4. PARETAK	11
5. ZORUA	11
6. ALTZARIAK	12
7. ARGIZTAPENA	13
8. KORPORAZIOAREN IRUDIA	13
9. AURKEZTU BEHARREKO HAINBAT KONPONBIDE	13
EKIPAMENDU ELEKTRONIKOA	
10. HITZALDI ETA ALDI BEREKO ITZULPENEN SISTEMA	13
11. EKOIZPEN BIDEOGRAFIKOAREN SISTEMA	14
12. BIDEO-DATUEN AURKEZPENA ARETOAN	20
13. MULTZOAREN AUTOMATIZAZIOA	21
14. BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA EPEAK	21
15. BERMEA	22
16. DOKUMENTAZIOA	23
17. HAINBAT	23





1.- XEDEA

ZEHAZPEN OROKORRAK

Jarraian egingo den deskribapena, Eusko Legebiltzarreko Prentsa Aretoa eraberritzean lortu nahi diren helburuen laburpen soil bat da. Adierazitako ideiak ideia soil gisa ulertu behar dira, eta lehiaketan parte hartzea erabakitzen duten enpresek garatu beharko dituzte.

Ondorengo lerroetan, beraz, euskal Ganberaren barruan funtsezkoa den espazioa, kargu publikoek eta komunikabideetako ordezkariak erabiltzen dutena, eraberritzeko hartutako erabakiaren mamia islatu nahi da.

Gauzatu nahi diren zehazpen teknikoak, altzariei eta argiztapenari dagozkienak, soinu-tresnen ezarpenari dagozkienak, eta abar, lehiaketaren orri formalean zehaztu dira guztiak. Orriotan hainbat ildo orokor besterik ez dira aipatuko, lehiaketan parte hartzeko interesa duten aldeek aipatutako espazioan egin nahi den eraberritzearen gutxi gorabeherako ideia jasotzeko.

Hogei urtetik gora ditu prentsa-aretoak eta ez dago behar den bezala egituratuta eta hornituta, legebiltzarkideen zein kazetarien lan egiteko modu berriei erantzuteko; horrenbestez, Eusko Legebiltzarrak zaharrituta geratu den prentsa-aretoa egokitzeko erabakia hartu du, espazioaren erabiltzaile guztiak bete beharreko lana errazteko.

Esan dugun moduan, Eusko Legebiltzarreko egungo prentsa-aretoaren eraberritze integrala egitea da xedea: puntako erreferente bihurtu nahi da, goi-mailako kalitatea eta errendimendua duen espazio bihurtu nahi da, nola legebiltzarkideentzat hala bertan lan egiten duten kazetari eta komunikabideentzat.

Gaur egungo prentsa-aretoa 116 m² inguruko espazio batek osatzen du, bi altueretan banatuta, eta espazio hori da, hain zuzen ere, aretotik aldatu ezin daitekeen zati bakarra. Gainerakoa aldatu, landu, birbanatu, eta abar egin daiteke, gaur egungo garaietarako egokia izango den prentsa-areto bat lortzeko eta egunero bertan lan egiten duten pertsona guztien beharrei erantzuteko.

Horrelako lehiaketa batek eskatzen duen sormen-askatasunaren barruan, aretoan nahitaez agertu beharreko hainbat elementu daude eta proposamenak lantzeko kontuan hartu beharreko hainbat zehazpen daude, halaber.





KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Hiru leku

Prentsa-areto berrian hiru leku desberdin ahalbidetu behar dira: bik espazio bera partekatuko dute eta hirugarrena independentea izango da. Prentsa-konferentziei dagokien lekuak – mahaian hizlariak eta eserita bertaratzen direnak- bateragarria izan behar du, espazioari eta tokiari dagokienez, adierazpenak egiteko lekuarekin –atrilean hizlaria eta zutik bertaratzen direnak-, hartara, hizlariak ikus-entzuleei, kazetariei kasu honetan, zuzenean hitz egiteko beti; kazetarien kokapena finkoa izango da, hizlarien aurrean jarrita.

Lortu nahi den hirugarren lekua telebistek lan egiteko set bat da. Komunikabide guztiek bertan egingo dituzte “in situ” guztiak edo elkarrizketak, zutik zein eserita (tartean bi aulki eta mahai txiki bat jartzeko aukera barne hartuta).

Atzealdeak eta argiztapena

Horrezaz gainera, atzealdeetarako zein argiztapenerako konponbideak aipatutako hiru lekuetarako izango dira halabeharrez, eta Ganberaren korporazio-irudia errespetatuko dute, altzariekin bat etorriko dira eta dagokien lanbide-jarduna bertan garatzen duten komunikabide grafiko, irrati, telebista, idatzizko prentsa eta interneteko prentsarako egokiak izango dira. Argiztapena ez da oztopo izango agertzeen garapen arrunterako, eta bitarteko grafiko onenen erabilera ez da eragozpen izango hizlariaren lanerako eta ez du hizlariaren arreta galaraztea eragingo.

Atzealdeak eta espazio-banaketa egokiak izango dira telebista bidezko grabazioak eta emanaldiak egiteko; proposatzen den audio-ekipoak, eta bere banaketak, bertaratzen diren irrati-komunikabideen lana errazteko balioko dute; argiztapenak, telebista bidez irudi egokiak emateko balio izateaz gain, prentsa idatziaren erreportariak lana ondo betetzeko lagungarria izan behar du, aldi berean.

Kamera digital finko robotizatua

Bideo-seinalea grabatzeko kamera digital bat egongo da. Finkoa eta robotizatua. Eusko Legebiltzarreko aretoetan (prentsaurrekoen aretoak, telebistako prentsa-aretoak, prentsa idatzirako aretoak, Tomás Moro aretoa, legebiltzarkide-taldeak, errealizazioen kontrol-zentroa, eta abar) gertatzen dena grabatu eta grabatutakoa emateaz gain, web-aren bitartez zuzeneko emanaldiak ahalbidetu nahi dira eta, beranduago, audioa eta bideoa web-ean jarri, nahi duen





orok, komunikabideek edo partikularrek, kontsultatu ahal izateko. Kamera hori lehentasunezko leku batean kokatuko da.

Behin hitzaldien irudia grabatu eta gero, interesdunek irudia nahi duten euskarritan erabiltzeko aukera izango dute, helarazitako mezua zein ekimenak ezagutzera emateko, goi-kalitatearekin zein behe-kalitatearekin.

Hitzaldi eta adierazpenen lekua

Sarritan, komunikabideen aurrean jartzen diren hizlariak nahiago izaten dute, egin behar duten adierazpen motagatik, edo beraien erosotasuna bilatzearen, mahai baten atzean egin edo zutik egin, atrilarekin. Egingo den proposamenak bi aukerak batean ahalbidetuko ditu, hartara, berriemaileek eta komunikabide grafikoek ez dute lekuz aldatu behar izango, hizlariak bere agerpena egiteko aukeratzeko duen modua edozein dela.

Mahaia erabiltzen bada, bost hizlarirentzako espazio adina edukiko du.

Atrila eta seta

Atrila kokatzen den tokian, pertsona batentzako lekua, bi mikrofonorekin, eta seta dagoen lekuan, gorago adierazitakoa: "in situ" hiru pertsonentzako espazioa, hiruak aldi berean zutik egoteko, bai kazetari bat bakarrik badago bai gonbidatuarekin batera badago, zuzeneko konexioak egiteko edo kazetaria eta gonbidatua eserita dauden elkarrizketetarako.

Setaren lekua egokitzeko, horrelako espazio batek dagokion xederako beharrezkoak dituen argi, soinu eta atzealdeekin lotutako baldintza guztiak eskainiko dira.

28 lanpostu, zoru tekniko eta 7 kameretarako espazioa

Berriemaile eta kazetarietarako espazioak 28 lanpostuetarako espazio finko bat edukiko du. Lanpostu horietan ordenagailu eramangarrietatik idazteko eta audio-grabazioak egiteko baldintzak eskainiko dira, bai eta mikrofonoa erabiliz hizlariengana zuzentzeko ere –hartara, bertan gertatzen den guztia grabatu eta soinua erantsi ahal izateko-. Bestalde, aldi bereko itzulpenerako kanal bat eta dagozkion aurikularrak egongo dira.

Zoru teknikoak edukitzeko aukera barne hartzen da -dagokion kableatua sartzeko-, izan ere, ezinezkoa da konexio horiek lur azpitik jartzea, jada instalatuta dagoen beste mota bateko azpiegitura elektrikoarekin bateraezina delako.





Atzean 7 telebista-kameretarako espazioa utziko da, eta kamera-angelua, atrilaren lekukoa zein mahaikoa, garbia izango da.

Horrezaz gainera, hizlariak zein kazetariak aretora sartzeko ate desberdinak erabiltzeko aukera aurreikusi da, horrela, a priori elkarrekin gurutzatzea saihesteko; helburua ez da gurutzatze hori eragozte, baina bai nahi badute bakarrik egitea, eta ez derrigorrez, orain arte bezala.

Proposamenen ezintasunak dituzten pertsonen iresgarritasun-eskubidea ziurtatuko da, indarrean dagoen araudia betez.

Telebista-pantaila

Prensa-aretoan nahitaez egon behar duen beste elementu bat telebista-pantaila da. Bertatik emango dira Ganberan bertan egiten diren osoko bilkura eta batzorde guztiak eta hizlariak prentsa-aretoan bertan egiten duen parte-hartzea edo hizlariak egiten dituzten dokumentazio-aurkezpenak, formatu batean zein bestean. Elementu hori aretoan barne hartzeko modua, lehiatzen diren enpresen sormenaren mende uzten da.

Bateragarritasuna euskal Ganberaren sistemarekin

Jakina, aurkeztuko diren proposamen teknologikoak, informatikoak, audioarekin lotutakoak edo bideoarekin lotutakoak bateragarriak izango dira Ganberan gaur egun erabiltzen diren ekipoekin, baina, aldi berean, baldintza hori ez da eragozpen izango aretoan azken ikus-entzunezko bitartekoak eta materialak hornitzeko eta, ondorioz, prentsa-aretoa goi-mailako prestazioak dituen espazio bihurtzeko.

Sormen librea

Aretoan nahitaez kontuan hartu beharreko elementu fisikoak, korporazio-irudiarekin lotutakoak eta baldintzatzaile teknologikoak argitu eta gero, askatasun osoa utziko da dekorazioa egiteko, atzealdeak antolatzeke eta espazioak berrinterpretatzeko orduan.

Helburua da bertan ibiltzen diren eragileek eta bertan dauden elementu finkoek zein jartzen diren elementu berriek harreman harmoniatsua edukitzea elkarren artean.

Nahitaezko elementuak eta dagokien eredia lehiaketa honen xedea hobetzeko jarri nahi diren berriekin bateragarri egiteko formula, enpresa lehiakideak berak aurkeztu beharko du eta espazioa da horretarako muga bakarra. Gainerako elementuak, konbinatzeko modua, orijinaltasun-maila, egokikortasuna, espazioen aprobeixamendua, teknologia berriei atera ahal zaien errendimendu ahalik eta handiena, eta funtzionaltasuna, kalitatea eta erabiltzaileei





emango zaien zerbitzua, aurkeztutako eskaintza guztietatik aukeratzen direnen artean baloratuko ditu legebiltzar-organoak.

Lehiaketa hau aurkezteko helburua argia da. Teknologia berriek eskain ditzaketen prestazio onenak barne hartzen dituen prentsa-areto bat lortu nahi da. Maila altuagoko prestazioak eta prestazio hobekak nahi dira, kazetariak beren lana hobeto garatzeko balioko dutenak, eta legebiltzarkideei beren mezuak eta ekimenak iritzi publikoari hobeto komunikatzea eta helaraztea ahalbidetuko dieten bitarteko puntakoenak hornitu nahi zaizkie.

2. GAUR EGUNGO EGOERA


Erakundearen sarreran, eraikinaren atartearen ondoan, eskuinaldean dago prentsa-aretoari dagokion lokala. Erantsitako planoaren eta argazkien arabera, honakoak kontuan hartu beharrekoak:

Barruti ia karratua da, 10,55m-koa eta 11 m-ko aldea duena. Berezitasunen artean, bi altuerako sabaia duela aipatu behar da: kanpoaldekoak 5 m-ko altuera du eta barrualdekoak 2,65 m-koa, solairuarte baten azpian. Gaur egun, solairuarte horren azpian dago prentsaurrekoetarako instalazioa. Goialdean, eskulturari bizkarra emanez eta sarrerako atearen parean, adierazpenetarako atrila dago.

Fatxadako leihoetako baten sargunea aprobeztatuz daude jarrita komunikabide grafikoek seinalea hartzea ahalbidetzen duten bitarteko teknikoak.

Adierazitakoaz gain, lokal horretatik beste txikiago batera igarotzen da. Lokal txikiago hori telebista-estudio gisa erabiltzen dute erakundeko gertaerez arduratzen diren kateek. Eta atzealdean, sarrerako atearen parean, eskultura garrantzitsu bat dago.





Gaur egun prentsa-aretoak duen banaketaren oinplanoko ikuspegia.





Prensaurrekoetarako guneak gaur egun duen banaketa. 5 postu dituen lehendakaritza-mahai bat du eta kazetarietarako 28 eserleku daude. Eserlekuek mikrofonoak, entzute-harguneak eta grabazio-harguneak partekatzen dituzte, eta aldi berean bi hizkuntza erabiltzeko aukera ematen dute.





Adierazpenetarako gunearen banaketa. Leihateak, eskultura, pareta pintatuen itxura, zoruen marmol zuri arabeskoa eta egokitu behar den barrutiaren bi altuerak ikus daitezke.





3. BANAKETA

Gaur egungo espazioak definitu eta gero, egiten den/diren proposamenean edo proposamenean proposamen-egilearen ustez aurreikusitako helburuak betetzen dituen edozein banaketa aurkez daiteke, hau da:

3.1.- 5 plazako lehendakaritza-mahai bat.

3.2.- 28 plazatarako prentsa-auditorio bat.

3.3.- Hizlarietako atril bat, aipatutako altzariekin bat etorriko dena.

3.4.- Gutxienez 7 kamera jartzeko gune bat, bakoitza dagokion tripodean muntatzeko lekuarekin.

3.5.- Telebistako elkarrizketak egiteko set bat: 2 aulki eta mahai bat edukiko ditu, gutxienez.

4. PARETAK

Solairuarteren azpian geratzen den pareta bat erraz desmuntatzeko modukoa izango da, aldiro-aldi mantentze-lanak eskatzen dituzten elementuak baititu. Estaldura edo pinturarekin lotuta proposatzen den konponbideak kontuan hartuko du soinu-emaizta bikainak lortzeko beharrezkoa den moteltze akustikoa. Proposatzen den estalduraren prestazioak zehazten dituen dokumentazio teknikoa aurkeztu behar da.

5. ZORUA

Gaur egungo zorua marmol zuri arabeskoarekin dago estalita. Zentzu horretan, hainbat baldintzatzaile hartu behar dira kontuan:

Gaur egungo altzariak kentzean zoladuraren zati bat hondatuta geratzen da, altzarien finkagailuak direla-eta.

Etorkizunean jarriko diren kableatuak espaziotik ibiltzeko oztoporik ez eragiteko moduan kokatuko dira.

Bai zoru teknikoa proposatzen bada, bai bestelako konponbide bat proposatzen bada, kontuan hartuko dira sartzeko ateak, iredagarritasuna, aulki gurpildunak, eta abar, autonomia-erkidegoan indarrean dagoen araudia betez.

Solairuarteren azpiko altuera eskasa (2,65 m).





6. ALTZARIAK

Instalatu behar diren altzari guztien elementuak deskribatuko dira jarraian:

6.1 LEHENDAKARITZA MAHAIA

Oholtza gainean jarriko da eta 5 hizlari sartzeko tamaina egokia edukiko du. Luzeran 4 m inguru edukiko ditu eta gutxienez 0,5 m-koa izango da gainaldearen sakonera. Gainaldea gaindituko duen fronte-hegal bat edukiko du, mikrofonoen oinarriak eta dokumentazioa ez ikusteko modukoa. Konexio-kutxa 5 monitore ahokatu eta 5 mikrofono gisako instalazioak jartzeko prestatuta egongo da.

Instalazioarekin bat datozen 5 aulki edukiko ditu.

6.2 HIZLARIENTZAKO ATRILA

Lehendakaritza-mahaiarekin bat etorriko da.

6.3 PRENTSA POSTUAK

28 postu edukiko ditu. Finkoak izango dira eta zolara itsatsita egongo dira. Banakako erabilerarako mahai tolesgarria edukiko dute, eserlekutik erabat independentea; mahaiak hitzaldi-ekipoetarako eta elikatze elektrikorako ahokalekuak edukiko ditu. Lehen lerroan mahai hegalduna egongo da, prentsa gunea mugatzeko. Lehiaketaren sormen-espirtuarekin bat eginez, besaulki eroak jarriko dira, espazioaren optimizazio maximoa lortzeko. Besaulkiek itzulera automatikoa eta besoarekin sinkronizatua edukiko dute. Mugimendu isilak egingo dituzte, eroak izango dira eta suaren kontrako ziurtapena edukiko dute.

6.4 KAMERETARAKO GUNEA

Prentsa-postuen atzean, edo horien artean, 7 telebista-kamera, eta bakoitzaren tripodeak, kokatzeko gune bat utziko da. Gune horretan instalatuko dira sare elektrikoaren zein aretoko audio-seinalearen harguneak.

7. ARGIZTAPENA

Aretoan garatuko diren jarduera guztiak bideoan grabatuko eta emango dira; horrenbestez, aurkeztuko den proposamenean telebista-erabilerarako argiztapenari eta lanerako argiztapenari dagokien konponbidea barne hartuko da. Kontuan hartuta argiztapena 2. loteko esleipendunak kontrolatu behar duela, proposatuko diren argiak DMX protokolo bidez kontrolatuko dira.





8. KORPORAZIOAREN IRUDIA

Erakundeak Korporazio Identitatearen Eskuliburua du. Berau kontuan hartuko da logo, testu, eta abarren diseinua egitean.

9. AURKEZTU BEHARREKO HAINBAT KONPONBIDE

Prentsa-postuak prentsaurrekoetan zein adierazpenetan erabiliko direnez, ekitaldi bakoitzerako "eszenategi-atzealde" desberdina edukitzea ahalbidetuko duen sistema bat diseinatzea komeni da. Eszenategi-aldaketa, horrelako proposamena egiten bada, prozedura automatizatu bidez egingo da.

EKIPAMENDU ELEKTRONIKOA

10. HITZALDI ETA ALDI BEREKO ITZULPENEN SISTEMA

10.1 MAHAIKO ETA ATRILEKO MIKROFONOAK

5 mikrofono edukiko ditu lehendakaritza-mahaiak eta 2 atrilak. Mikrofonoak profil estukoak izango dira eta dagokien altzarian ahokatzeko elementu elastikoak erabiliko dira, bibrazioak moteltzeko eta nahi ez diren soinuak ekiditeko. Mahaiak kutxa landatu bat edukiko du, eta informatika-sarera konektatzeko puntuak, entxufea, VGA sarrera eta ordenagailu-konexiorako audioa edukiko ditu, aretoan aurkezpenak egiteko beharrezkoa denean erabiltzeko.

10.2 HAINBAT MIKROFONO

Giro-mikrofono bat instalatuko da, sabaian integratuta ahal bada. Horrezaz gainera, aretoak hari gabeko mikrofontia-sistema bat edukiko du. Bi "plug on" (entxufa daitekeena) transmisore edukiko ditu, XLRrekin eta atrilaren barruan inkaminatzeko katigamendua, bai eta bi hargailu ere, 2 mikrofono-multzo osatuz. Mikrofonoek profil estua edukiko dute.





10.3 PRENTSA MAHAJETARAKO HAINBAT MIKROFONO ETA EKIPAMENDU

Bi pertsonak erabiltzeko luzera nahikoa edukiko dute (16 unitate 28 postutarako). Gainera, postu bakoitzean aldi bereko itzulpeneko hautagailu bat, grabazio-irteera orekatu bat, indar-hargune bat eta datu-hargune bat instalatuko dira.

Instalatuko den mikrofono-sistema osoak bus digital baten gainean funtzionatuko du eta kontrol-unitate bakar batek jasango eta kudeatuko du.

Aldi bereko itzulpenaren urrutiko instalazioa egiteko bi idazmahai egongo dira. Bosch DCN Next Generation motakoa edo antzekoa izango da aipatutako ekipamendua.

10.4 MEGAFONIA

Prentsa-aretoak barrutiaren tamainarako egokia den megafonia edukiko du eta feedback-a ezabatzeko sistema eta mikrofonoen nahasgailu automatikoa edukiko ditu.

11. EKOIZPEN BIDEOGRAFIKOAREN SISTEMA

11.1 HELBURUAK

Prentsaurrekoak eta adierazpenak irudi finko bidez grabatzea; aldez aurretik goi-mailako kalitateko audio/bideoan doitu da.

Irudia eta dagokion soinua CCTV zirkuitu bidez zuzenean ikusi ahal izateko eta, aldi berean, bertaraten diren komunikabideei, eta azpiegitura egokia badute kasuan-kasuan dagokien norakoei, emateko instalazioa edukiko du. Instalazio horrek kamera robotizatua, bideo-nahasgailua eta grabazio-instalazioa edukiko ditu, prentsa-aretoan zein grabazio-gelan, eta irudiak eta soinua kapturatu, bihurtzeko eta web bidez automatikoki edozein norakora igortzeko sistema bat edukiko du, elementu nagusi gisa.

Kamera hori tripode edo idulki baten gainean jarriko da edo, egiten den proposameneko banaketaren arabera, aretoak izan ditzakeen zati guztien memoria barne hartuko duen buru robotizatuko euskarri baten gainean. Azken hori, kamera kokatzen den barruti berean ikus-entzunezkoen alorrean prestakuntza berezia ez duten langileek erabiltzeko modukoa izango da. Gainera, urrutiko agintea edukiko du, grabazio-gelaren ondoan, erabilera profesional hobe egin ahal izateko.





Prentsaurrekoen gelan disko gogorrean eta DVDan bideo-grabazioak egiteko sistema bat edukitzea. Urrutitik erabiltzeko aukera emango du, bertaraten diren guztientzako kopiak egiteko aukera emanez.

Bestalde, ikus-entzunezko ekoizpen-gelan disko gogorra duen beste grabagailu bat egongo da. Ethernet-etik urrutiko sarbidea egiteko aukera emango du eta honako bideo-formatu hauek grabatzeko edo bihurtzeko aukera emango du, halaber: Mpeg-2 PAL, 720 x 576 pixel eta 25 fotograma segundoko, AVi eta Quicktime Video.

Transkodetze-prozesu guztiak automatikoak izango dira. Bideo-formatuak aipatutako formatuetara bihurtzeko prozedura guztiak diseinatu, prestatu eta probatu beharko ditu lizitatzailerak.

Urtean bi jardunaldi aurreikusiko dira, lau urtez, agertzen diren behar berrietarako prozesu berriak sortu ahal izateko.

Gailuak grabatzen dituen edukietara Ethernet sarearen bitartez sartzeko aukera emango da eta protokolo nahikoa indartsua prestatuko da fitxategi handiak transferitu ahal izateko.

Gailuak Ethernet sarearen bitartez urrutitik kontrolatzeko aukera emango du eta oinarrizko hainbat funtzio edukiko ditu: grabaketa hastea, geratzea, etetea, beste formatu batera bihurtzea.

Lokal bakoitzean honako ekipo hauek egongo dira:

IKUSENTZUNEZKO EKOIZPEN ARETOA (70 m-ra kokatua)	PRENTSA ARETOA
BIDEO NAHASGAILUA	KAMERA
MONITORIZAZIOA MULTILEIHOETARAKO AUKERAREKIN	AGINTE ROBOTIKO BAKUNA MONITORIZAZIOAREKIN
GRABAZIOA	A+B BANAKETA
AGINTE ROBOTIKO OSOA	DVD GRABAGAILUA + DISKO GOGORRA
INSTALAZIOA BADAGOEN KONTSOLAN	BISTARATZE SISTEMA
A+B BANAKETA	RACK ALTZARIA
	AUTOMATIZAZIO AGINTEA
	2 MONITORE MAHAIAN AHOKATZEKO





11.2 EKIPAMENDUAREN EZAUGARRIAK

Ekipamendua osatzen duten enbor-elementuen deskribapena egin da jarraian. Xehetasunak eta elementu osagarriak esleipendunak osatuko ditu, bere proposamenaren arabera, instalazioa erabiltzeko prest utzi arte.

1.- Urrutiko agintea duen kamera, honako zehazpen hauekin:

2/3"-ko 3 CCD

14 bit-eko A/D bihurtgailua.

SDI/HD-SDI irteera, menu bidez konfiguratu daitezkeena. Irteera hori konfigurazioan barne hartuko da (SDI (HD/SD) irteera-txartela).

Baioneta motako eustina duen optika.

AC egokigailua, konexio-kable guztiak barne hartuta.

1080/50i, 720/50p, 576/50i bideo-formatua.

Panasonic AW-HE870 motakoa edo antzekoa.

2.- 2/3 HD Broadcast optika: urrutiko kontrolerako. 20x zooma, 8.5-170 mm fokala, Panasonic AK-LZ20M85G motakoa edo antzekoa.

3.- Pan & Tilt barruko buru trinkoa, HD xede anitzeko kamerarako, lenteetarako kontrolagailuak barne hartuta, 300° (pan) eta 190° (tilt) biraketak ahalbidetuko dituen eta elikatze-unitatea edukiko duena. Panasonic AW-PH360L aldatua edo antzekoa, ahalik eta inpaktu bisual txikiena bilatuz beti. Dagokion AC egokigailua barne hartuko du.

4.- Urrutiko kontrol-panelak (bi unitate).

4.1 Grabazio-gelan instalatzeko panel osoa, honako ezaugarri hauekin:

5 kamera eta 5 pan-tilt buru arte.

Mugimendu azkartasun erregulagarria aginte-palankaren inklinazio bidez.

Bi eragiketa-abiadura.

50 memoria kamerako.

Kameraren kontrol osoa.

Elikatze-unitatea.

Panasonic AW-RP655 motakoa edo antzekoa.





4.2 Prentsa-aretoan instalatzeko oinarrizko panela. Prentsa-aretoan instalatuko den/diren kamera edo kamerak kontrolatzeko gai izango da. Gutxienez 12 posizionamendu-memoria edukiko ditu, parametro guztiekin. Ekipo dedikatua izan daiteke, edo aretoko automatizazioaren zati izan daiteke.

5.- Formatu anitzeko LCD monitore profesional panoramikoa, Sony LMD-1530W/SDI motakoa edo antzekoa, aretoko rack-altzarian kokatzeko.

6.- 19"-ko bi LCD pantaila lehendakaritza-mahaian ahokatzeko.

7.- Estudioko idulki gurpilduna, 100 mm-koa, kable-babesa eta norabide-finkatzea, 30 kg jasateko gaitasuna duena, Vinten Pro-Ped V3951-0001 motakoa edo antzekoa, oinarrizko orekatze-elementuekin, eta abar.

8.- Bideo-nahasgailua; trinkoa, formatu anitzekoa, leiho anitzetan bistaratzeko aukerekin. 4 HD/SD-SDI sarrera eta 3 irteera edukiko ditu eta 8 sarrera eta 7 irteera arte zabaldu ahal izango da. Serieko irudi-txertatzea barne hartuko du, Chroma Keyer eta DSK, Frame Sync, SD txartela. Irudiak monitore bakar batean bistaratzeko irteera edukiko du. 2 sarreretarako eta SD/HD-SDI 2 irteera osagarriako handiagotze-txartelak edukiko ditu.

Panasonic AV-HS400AE motakoa edo antzekoa.

9.- 32"-ko LCD panoramikoa, monitore profesionalarekin. Bereizmena: 1366 x 768 WXGA. Leiho anitzeko bistaratzeko egiteko.

10.- Grabagailuak.

10.1 DVDa disko gogorarekin, prentsa-aretoan jarriko den kableatuaren urrutiko kontrolerako agintearekin. Combo motakoa, 500 Gb-ko disko gogor integratuarekin. Edukiak hartu, biltegitatu eta manipulatzeko, SDHC txartel-irakurgailua, Blu-Ray grabagailua edo DVDa. Askotariko sarrera eta irteera-interfazeak, HMI, USB, IEEE1394 eta analogikoa barne hartuta. JVC SR-HD1500EU motakoa edo antzekoa.

10.2 Denbora errealeko HD Kaptura eta Kodetze Sistema automatizatua. Sarean oinarritutako denbora errealeko bideo-kaptura eta -erreproduktzio-ko bi kanaleko gailu bat erabiliko da, fitxategiak oinarrian dituen edozein lan-fluxutan HD/SD bideoa eta audio kapsulatua maneiatzeko gaitasuna duena. Telestream Pipeline, PLHD-DC EU motakoa edo antzekoa.





Lanbide-ingurunerako plataforma anitzeko (Mac eta PC) konponbide osoa lortu nahi da, elikatze-unitate bikoitza barne hartzen duena.

Gailua kontrolatzeko beharrezkoa den sistemaren eskakizun minimoa:

Hardwarea: Intel Core Duo, Core 2 Duo edo Quad Core CPU,
2GB RAM minimoa, media dedikaturako biltegitratzea, Ethernet-eko gigabit 1.
Sistema Eragilea: Mac OS X 10.5 edo ondorengoa, Windows XP Pro, Windows Vista Ultimate,
Windows 7, Windows Server 2003 & 2008

Biltegitratze-erakiera: 4.000 GB, 4 hot swap driver/RAID 0, 10 interfaz eSata, 7.200rpm artekoa. 400 Mb/s-ko transmisio-abiadura. Lacie 4big Quadra motakoa edo antzekoa.

Kaptura-gailua transkodatze eta edizioko hainbat sistematarako kualifikatua izango da. Horrezaz gainera, media-fitxategiak editatzeko eta transkodatzeko aukera emango du, kodetzen ari den bitartean.

HD bi kanaletako bakoitzak honakoak edukiko ditu:

- Bideo-sarrera eta -irteera (HD/SD SDI)
- SMPTE 259M-C (270Mb/s, 480i/576i) 625/50, 525/59.94)
- SMPTE 292M (1.5Gb/s, 720p/1080i/1080p/1080Psf)
- Audio kapsulaturako 16 kanal arte SDI 48 Khz serierako, 16/24 bit konpresio gabe.
- RS-422 ataka VTR kontrolerako (Sony protokoloa)
- 1000 Mbps Ethernet ataka. TCP/IP, UDP, RTSP, RTP protokoloak eta Apple Bonjour-ekin bateragarritasuna.

Gailuak SDI serieko sinkronismorako erreferentzia-sarrera edukiko du, begizta-irteerarekin eta VITC eta RS-422 bidezko denbora-kodearen sarrerarekin

Denbora errealeko kodetzerako eta deskodetzerako onartzen diren bideo-formatuak:

- DV/DVCPRO (25Mbps)/DVCPRO50/DVCPROHD
- IMX 30, 40, 50
- ProRes 422, ProRes 422 HQ
- MPEG-2 I-frame (50Mbps)
- DNxHD (VC-3 compliant)
- 8-bit SD konpresio gabe.





Media kapsulatzeko onartzen diren formatuak:

- OPAtom MXF/AAF
- OP1a MXF (generikoa eta XDCAM)
- QuickTime MOV

- TIFO

Kodetze-gailua fitxategi digitalen sistemekin, "online" liburutegiekin integratu ahal izango da.

Kodetze-sistema.

Plataforma anitzeko softwarea oinarrian duen sistema, bideo- eta audio-fitxategiak transkodetzeko. Arkitektura eskalagarriarekin, makina bakar batetik hainbat nodok osatutako cluster baterako konfigurazioak ahalbidetuko dituena.

10 bit-eko euskarria bideo-kodetzerako. 4:2:2:4 eta 4:2:0 jasaten ditu. Gainera, 4:4:4:4 jasaten du formatu profesionaletarako.

Ur-markak, trailer-ak eta bumper-ak eransteko gaitasuna.

Frame-tik frame-rako aurretiko gaitasuna.

Interfaz trafikoa intuitiboa, "arrastatu eta askatu" funtzionaltasunarekin, eta lan grafikoaren fluxuen kudeagailu/moldagailu bat, prozesu-zuhaitzaren moduko bistaratzearekin.

Fitxategi kodetuak karpeta lokal batean, FTP zerbitzari batean edo SMB sistema batean gordetzeko eta edukia YouTube-n automatikoki argitaratzeko gaitasuna.

Transkodetzea egiteko honako formatu hauek jasango ditu: AVI, Flash 9 eta Flash 8 (VP6s, VP6e), Windows Media 9, H.264, WebM, MPEG-1/-2/-4, VC-1, DV, 3GPP/2, M4A, MOV, eta hainbat QuickTime kodeka. Mac-erako, gainera, ProRes jasango du.

Mac eta PC nodoak cluster batean erraz nahasteko gaitasuna.

CPUen prozesu-edukiera guztia aprobeztatuz kodetzea banatuta eta zatituta egiteko teknologia edukiko du.





Halaber, kodetze paraleloa egiteko aukera emango du, hainbat fitxategi aldi berean transkodetuz.

Karpeta lokalak sarean monitorizatzeko euskarria eta FTP lan-fluxuaren automatizazio osoa egiteko.

Txantiloien set oso bat barne hartuko du.

Bideoaren aurre-prozesatzerako iragazkiak edukiko ditu.

- Zuri eta beltzen leheneratzea.
- Gamma eta HSV zuzenketa.
- Soinu-murrizketa.
- Irudiak profilatzea.
- Normalkuntza, balantzea fade in/out audiorako.
- "Lehen eta ondoren" konparazioa

Kodetzea bi pasalditan, kalitate maximoa lortzeko (H.263,H.264, WMV, MPEG2/4)

Algoritmoa ber-eskalatzerako eta ber-laginketarako, PALetik NTSCrako framerate-bihurketarekin eta alderantziz, pulldown 3:2 eta 2:3.

5.1 eta 7.1 sourround soinuaren kodetzerako euskarria.

Bideo-formatu profesioaletarako euskarria: MXF, GXF, IMX, TS MPEG2/4, beste batzuen artean.

Transkodetze-prozesu guztiak automatikoak izango dira. Bideo-formatuak aipatutako formatuetara bihurtzeko prozedura guztiak diseinatu, prestatu eta probatu beharko ditu lizitatzailleak.

Urtean bi jardunaldi aurreikusiko dira, lau urtez, agertzen diren behar berrietarako prozesu berriak sortu ahal izateko.

Gailuak grabatzen dituen edukietara Ethernet sarearen bitartez sartzeko aukera emango da eta protokolo nahikoa indartsua prestatuko da fitxategi handiak transferitu ahal izateko.

Gailuak Ethernet sarearen bitartez urrutitik kontrolatzeko aukera emango du eta oinarrizko hainbat funtzio edukiko ditu: Grabaketa hastea, geratzea, etetea, beste formatu batera bihurtzea.





11.- Instalazioa. Bi 42U rack-altzari erabiliz. Altzari bat prentsa-aretoan bertan hornitu eta kokatuko da eta bestea gainerako urrutiko ekipoen ondoan, eraikinaren hirugarren solairuan 70 metroko distantziara dagoen kotsolan espazioa partekatuz. Kableatu guztiek jasango dituzte 3G-SDI arteko seinaleak.

Gainerako kableatu guztia, instalazioa osatu arte. Monitorizaziorako, grabaketarako, kontrolerako, aginteetarako, bai eta beharrezkoa den audio-bideo banaketa egiteko ere.

12. BIDEOA-DATUAK ARETOAN AURKEZTEA

Aretoan gutxienez 65"-ko monitore lau profesional bat egongo da eta funtzio horiek betetzen dituen beste bistaratze-elementu bat egongo da, halaber. Seinale guztiak jasoko ditu, bai barne-banaketari dagozkionak bai LTD antenari dagozkionak. Gainera, hizlariek aurkeztu nahi dituzten proiektzioak bistaratzeko sistema gisa balioko du. Horretarako, lehendakaritza-mahaian bi monitore ahokatu jarriko dira, monitoreko seinalea errepikatzeko. Lehendakaritza-mahaiko seinalea hartzeko puntuaz gain, seinalea sartzeko beste bi puntu instalatuko dira aretoan.

13. MULTZOAREN AUTOMATIZAZIOA

Altzari teknikoaren gainean, edo zehazten den gunean, kontrol-gailu bat jarriko da. Gailu horrek ukipen-pantaila eta bideo-monitorea edukiko ditu, lortu nahi den giroaren arabera aretoko parametroak kontrolatzeko.

Sistemak honako hauen gaineko agintea edukiko du:

Instalazio elektrikoak piztu eta itzaltzea.

Argiztapena, prentsaurrekoa, eserita edo atrilaren atzeko estiloaren arabera.

Mikrofono aktiboak kasu bakoitzean.

Grabagailuak martxan jartzea eta gelditzea.

Megafonia-maila.

Kameraren kokapena eta fokuratzea plano desberdinetan.

14. BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA EPEAK

Eraberritzea 2011ko abuztuan eta iraileko lehen hamabostaldian egingo da. Obren hasiera aurreratu daiteke, obrek Legebiltzarreko jardunean eragin ditzaketen gorabeheren arabera.





Eskaintzetan sei asteko gauzatze-epe maximoa betetzeko konpromiso saihestezina jasoko da, aurreko paragrafoan adierazitako datetan, lehiaketa honen xedea den muntaia gauzatzeko.

Lehiakideak sortuko duen dokumentazioan honako eduki hauek barne hartuko dira:

Proiektua deskribatzen duen memoria.

Aretoaren irudi birtuala, beharrezkoak diren baliabide grafikoak adierazita, hartara, behin eraberritzea amaitu eta gero, aretoak izango duen itxuraren aurkezpen bisuala egiteko.

Ekipamenduaren ezaugarri teknikoak, neurriak, materialak, ezaugarriak, homologazioak, eta abar, instalazioa osatzen duten elementu bakoitzaren eta guztien kasuan.

Proposatuko den aretoko kontrol-sistemaren ezaugarriak. Aretoko eta/edo ganberako kontrol-menua osatzen duen/duten pantailaren edo pantailen irudia.

Elementu guztien dokumentazio komertziala eta teknikoa.

2. lotearen kasuan, bereziki, enpresa esleipendunak prestakuntza-ikastaro bat egin beharko du Eusko Legebiltzarreko langile teknikoentzat. Ikastaroaren edukiari dagokionez, eskaintako kameraren eta robotikaren ezaugarri fisikoak eta prestazioak, bai eta horien erabilera eta kudeaketa ere, barne hartuko dira.

Eskaintzetan zehatz-mehatz adieraziko dira instalazioa aurkeztutako konponbidera egokitzeko bete beharreko baldintzen erreferentzia teknikoak.

Azken prezioan barne hartuko dira zergak, aseguruak, garraioa eta instalazioaren hornikuntza eta gauzatzearekin lotutako beste edozein kostu.

Eskaintzetan nahitaez barne hartuko da eskaintzaileak lehiaketa honen xedea gauzatzeko dituen giza bitarteko tekniko guztien deskribapen berariazkoa, eta erabiliko den ekipo teknikoa zehaztuko da: langile teknikoen kopurua kategoriaren arabera, bakoitzaren lanbide-esperientzia, ohiko bulegoaren kokapen geografikoa, proiekturako dedikazioa. Halaber, aipatutako ekipoak edukiko duen laguntza tekniko osagarria zehaztuko da. Eskaintzetan antzeko proiektuen erreferentziak adieraziko dira, halaber.





Eskaintza bakoitzaren baldintza teknikoak egokitzeko, eta lehiaketa honen xedea hobeto beteko dela ziurtatzeko helburuarekin, lizitatzailleak oinarri hauetan proposatutako aukerak osatzeko beste aukera batzuk aurkeztu ahal izango ditu.

Eusko Legebiltzarrak aukera horiek balia ditzake ekipoak behar den bezala konfiguratzeko, oinarrizko eskaintzako osagaiak antzeko beste batzuegatik ordezkatzeko edo ekipo jakin batzuei lehiaketa honetan hasiera batean eskatutakoak baino prestazio hobek emateko, betiere lehiaketarako zehaztutako prezio maximoaren barruan egiten bada.

15.- BERMEA

Eskaintako ekipoek gutxienez bi urteko bermea edukiko dute, eta berme horren barruan sartuko da jardunezko mantentzea. Oro har, jardunezko mantentzea eskaintzaren xede den ekipamenduaren funtzionamendu akastuna edo matxura eragiten dituzten arrazoiak konpontzeko laguntza tekniko espezializatua ematean datza. Laguntza-zerbitzuak matxuraren jakinarazpenaren berri izan eta gehienez ere hogeita lau orduetan konponduko duela bermatuko du, 8 x 5 modalitatean (8 ordu egunean, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-egunetan).

Konponketa bakoitzaren kasuan dagokion lan-partea osatuko da eta bertan adieraziko dira eskaintako zerbitzua, gorabeheraren arrazoia eta erabilitako materialak edo instalatutako ordezkako materialak.

Laguntza teknikoaren langileei dagozkien gastu guztiak, joan-etorriak, dietak, garraioa eta aseguruak, barne hartuta, bai eta erabiliko diren materialak eta bitartekoak, neurketa-ekipoak, dokumentazioa, mantentze-stocka eta konponketa, euskarria edo hirugarrenen esku-hartzea (fabrikatzailearena edo ordezkariarena), enpresa esleipendunaren kontura izango dira eta eskaintza ekonomikoaren barruan barne hartuko dira.

Bermea harrera-aktaren datatik aurrera hasiko da.

Instalazioa ez da amaitutzat joko, instalatzaileak ez badu aurkeztu ondorengo puntuan adierazitako dokumentazioa.





16.- DOKUMENTAZIOA

Hornitutako material eta ekipo guztien eskuliburu teknikoak aurkeztuko dira.

Proposatutako konponbideari buruzko dokumentazioa aurkeztuko da: eskemak, osagaiak, funtzionamendua, mantentze-lanak, zabalteko aukerak.

Ez da obraren harrera egingo, dokumentazio osoa eta zehatza jaso bitartean –dokumentazio horretan gauzatutako proiektuaren eskemak eta xehetasun guztiak adieraziko dira-.

17.- HAINBAT

Behin eskaintzak ireki eta gero, Eusko Legebiltzarrak eskubidea du onartu diren eskaintzak aurkeztu dituzten enpresei edozein egiaztapen edo proba egiteko eskatzeko, kasuan-kasuan eskaintzetan adierazitakoa egiaztatzeko.

Berme-epea amaitzean eta eskainitako proiektua behar den bezala gauzatu dela egiaztatu eta gero, jarritako fidantza itzuliko da.

